

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3653

AGINDUA, 2022ko uztailaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bitartez baimena ematen baita Gernika-Lumoko (Bizkaia) CPEIPS «Seber Altube Ikastola» HLBHIP Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Hezkuntza Bereziko unitateak gehitzeko.

Gernika-Lumoko (Bizkaia) «Seber Altube Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak Hezkuntza Bereziko gela ireki bat gehitzeko baimena eskatzeko hasitako espedientea aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena daukaten erakundeek horri buruzko txostena egin dute.

Arau hauek izan dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); 1998ko uztailaren 30eko Agindua, beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko dena (abuztuaren 31ko EHAA); gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den ikastetxeari baimena ematen zaio Hezkuntza Bereziko gela ireki bat gehitzeko 2022-2023 ikasturtetik aurrera:

Kodeak: 014527 eta 48005470.

Izen generikoa: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua.

Izen espezifikoa: «Seber Altube Ikastola».

Titularra: «Gernika Sociedad Cooperativa».

Helbidea: Zearreta z/g.

Udalerrria: Gernika-Lumo.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Baimena: Hezkuntza Bereziko gela ireki bat gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntza, lehen zikloa: 6 unitate.

- Unitate bat 0-1 urte bitarteko ikasleentzat, 8 ikaspostuko edukierakoa.
- Hiru unitate 1-2 urte bitarteko ikasleentzat; bakoitza 13 ikaspostuko edukierakoa.
- Bi unitate 2-3 urte bitarteko ikasleentzat; bakoitza 18 ikaspostuko edukierakoa.

- Haur Hezkuntza, bigarren zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostu.
- Lehen Hezkuntza: 12 unitate, 300 ikaspostu.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 8 unitate, 240 ikaspostu.
- Hezkuntza Berezia: 3 gela ireki.

2. artikulua.– Ikastetxeak indarrean dagoen araudia bete behar du agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularrak erantzukizuna edukiko du baldintza horiek betetzen ez badira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen bidez baimena emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza sailburuari agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro aurretik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 20a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.